

ARESOKO UDAL ERAIKINAK GARBITZEKO ZERBITZUEN KONTRATAZIOA:
--

1.- Bete beharreko baldintzak:

- a) Kontratatuko pertsona Gizarte Segurantzako autonomoen araubidean alta eman beharko du.
- b) Jarduera Ekonomikoen Zergan (IAE) alta tramitatuko du.
- c) Aresoko herrian bizi diren pertsonen lehentasuna izanen dute.

2.- Egin beharreko lanak:

- a) Eskola: Covid19ak sortutako pandemia egoeraren baitan bi eszenatoki ezberdin aurreikusten dira eskola garbiketarako.

- Covid neurriak mantendu bitarte:

Ikasturtean zehar: Egunero Nazabal IPko bere osotasunean garbitu behar da, 2 orduko tartean.

Uztaila eta Abuztuan: Garbiketa orokor bat egin beharko da, bat uztailan eta beste bat abuztuan. Garbiketa orokor bakoitzeko 10 orduko tarteko aurreikuspenarekin.

- Normaltasun egoeran:

Ikasturtean zehar: Astean hiru aldiz garbitu (Astelehena, asteazkena eta ostirala).

Uztaila eta Abuztuan: Garbiketa orokor bat egin beharko da, bat uztailan eta beste bat abuztuan. Garbiketa orokor bakoitzeko 10 orduko tarteko aurreikuspenarekin.

Edonola ere, garbiketa eskola ordutegitik kanpo egin beharko da. Kontratua sinatzerako momentuan, Covidari dagokionez zein egoeretan dagoen kontuan izango da, eta kontratuan egoera aldaketaren inguruko aldaketarako baldintzak, aurre jakinarazpena esaterako, arautuko dira.

- b) Osasun etxea: Emagina hilabetean behin etortzen denez, (normalean hilabeteko hirugarren asteazkenetan), osasun etxeko garbiketa aurretik eta ondoren egin beharko da, osotara bi orduko tartean.

Kontsulta eguna aldatuko balitz, Udalak jakin bezain pronto garbiketa zerbitzu emaileari jakinaraziko dio.

- c) Udaletxea: Astean behin garbitu beharko da, bi orduko tartean.

- Lehengo solairua: Batzar aretoa, komunak, Idazkaritza.
- Bigarren solairua: Gela guztiak, hau da, bulego txikia, lotuta dauden bi gelak eta komuna.
- Eskailerak eta igogailua.

3.- Kontratuaren baldintzak eta materiala:

- a) Kontratutako pertsonak udalak zerbitzuaren inguruan zehaztutako irizpide orokorrak bete beharko ditu.
- b) Autonomia denez, bere lanaren antolaketarako ahalmena izango du, ordutegia eta jarduna antolatzekoa, beti ere, udalak zehaztutako baldintzak beteta.
- c) Garbiketarako materiala kontratatua denak jarri beharko du.

4.- Kontratuaren prezioa eta iraupena:

- a) Prezioa: Hilabetean 850 euro (BEZ barne).
- b) Iraupena: urte bat, luzatzeko aukerarekin.

5.- Eskabideak aurkezteko epea:

Interesa duten pertsonak eskabideak **URTARRILAREN 21a, 15:00ak ARTE** dute euren burua aurkezteko.

Aresoko Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako bideetako bat erabiliz. Aresoko Udalaren Erregistroan aurkezten ez bada, areso@areso.eus helbide elektronikoan jakinarazi beharko da eskabideak aurkezteko epearen barruan, Udalaren administrazio-lana errazteko.

6.- Kontratua esleitzeko prozedura:

Kontratuaren prezioa aintzat hartuta, zuzenean esleitu dezake udalak urtarrilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikuluan zehazten denaren arabera. Hori dela eta, baldintzak betetzen dituzten eskabideen artean zozketa egingo du udalak, aurkeztutako eskaintzen artean hurrenkera osatzeko.